

VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARANGO BASA-BIDEAK ETA HIRI-ALTZARIAK BERREZKURATUZ ENPLEAGARRITASUNA HOBETZEKO ENPLEGU- PROGRAMAN PARTE HARTZEKO PROZESUA ARAUTZEKO OINARRIAK

1.- Sarrera.

Meatzaldeko Behargintzak, bere jarduera eremuan, sustatu beharreko arlotzat dauka enplegua eta Meatzalde osoaren garapena, gizarte osoak onurak atera ditzan bere ekintzetatik.

Lanbidek-Euskal Enplegu Zerbitzuak *Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako laguntzen deialdiaren* barruan emandako diru-laguntzak ezartzen du kontratazio horiek Udalekin loturiko enpresak egin dezaketela kontratazioak, Meatzaldeko Behargintzak, S.L.k kasurako.

Programa hauek ahalbideratzen diete parte-hartzaileei euren kualifikazioa hobetzea eta era berean, kontratazio aldian soldata bat jasotzea. Enplegu programen bidez lortu nahi den azken helburua da parte-hartzaileen kualifikazioa eta enplegarritasuna hobetzea.

2.- Oinarrien xedea.

Oinarri hauen xedea da VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARANGO BASA-BIDEAK ETA HIRI-ALTZARIAK BERREZKURATUZ ENPLEAGARRITASUNA HOBETZEKO Valle de Trápaga-Trapagarango Udalarentzako Lanbideren enplegu programako 12 lanpostuetako bat eskuratzeko hautapen prozesua arautzea.

3.- Parte-hartzaileak hautatzeko Balorazio Batzordea.

Meatzaldeko Behargintzako langile teknikariek osaturiko Balorazio Batzorde batek egingo du hautapena Lanbidek- Euskal Enplegu Zerbitzuak egindako enplegu eskaintzetan izena eman eta Valle de Trápaga-Trapagarango Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian agiriak epez eta eraz aurkeztu dituzten hautagaien artean. Batzorde horrek hautagaiak elkarrizketatuko ditu eta haiek aurkeztutako agiriak barematuko, oinarri hauetan ezarritako irizpideen arabera.

Batzordeak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak konpontzeko eta prozesua ondo bidean joateko behar diren erabakiak hartzeko. Beharrezkoa balitz, hautagaiak aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, agiriak zuzentzeko edota erreklamazioak egiteko epe bat eman dezake.

4.- Kontratuak, eginkizunak eta ordainsariak.

Hasiera batean 12 kontratu egingo dira, lanaldi partzialekoak (ohiko lanaldiaren %75), 6 hilabeteko iraupenekoak, plantillakoak ez diren lanpostuak betez. Kontrataturikoek adibide gisa, honako lanak egingo dituzte:

- Udal bideak garbitzea, arekak eta ur-bideak barne, leku hauetan:
 - o El Pasillo
 - o Larreineta
 - o La Górrigako bideak
 - o Las Barrietasko bideak
 - o Parkotxa bidea
 - o Hilerrirako sarbideak eta La Ronda
 - o Elguerorako igoera
 - o Durañonarako igoera
 - o Zaballa ingurua
 - o Salcedillo estrata
 - o Aldaigana (kiroldegi zaharra)
 - o San Andres estrata
 - o Funikularra eta Tanoren iturria
 - o Orixe bidea eta bilgortegia
 - o Escontrilla Alta
- Ibai-ertzak eta erretenak garbitzea.
- Orube publikoak, eta batzuetan pribatuak ere, garbitzea.
- Mantenimendu eta margoketa lanak egitea, adibidez:

- o Fundiziozko zutabeak, herdoil hondakinak kendu eta gero.
- o Fundiziozko lore-ontziak
- o Fundiziozko bolardoak
- o Hormigoizko hesiak
- o Burdinazko eskudelak, herdoilaren aurkako tratamendua eman eta gero
- o Udal pabiloiaren fatxadak eta barrualdeak
- o Bankuak eta listoiak lixatu eta berniztu
- o Udalaren eta partikularren hormetako grafitiak eta margoak kentzea.
- o Horma, trafiko seinale eta hiri-altzarrietan itsatzitako paperak eta pegatinak kentzea.
- o Lurrazpiko pasabideak
- o Lauaxeta plazako zintarriak eta hesiak

Langileak aldibaterako kontratatuko dira, "obra edo zerbitzu zehatz baterako kontratua" egingo zaie eta Bizkaiko Eraikuntzaren Sektorerako Hitzarmen Kolektiboan ezarritako hileko ordainsari gordinak jasoko dituzte (Hitzarmen kod.: 4800715011981, 19 zk.ko BAO on argitaratua, 2013/01/28an, astelehena) betetako lanpostu bakoitzaren eta lanbide-kategoriaren arabera.

Kontratuetan proba-aldi bat egongo da. Eskainitako lanpostuak honakoak dira: Zerbitzu anitzeko 1. mailako igeltsero ofizial bat eta Zerbitzu anitzeko 7 peoi.

- Lanpostua: **Zerbitzu anitzeko 1. mailako igeltsero ofizial bat**
- Maila profesionala: 1. Mailako ofiziala.
- Aplikatuko den hitzarmena: Bizkaiko Eraikuntzaren Sektorerako Hitzarmen Kolektiboa "(Hitzarmen kod.: 4800715011981, 19 zk.ko BAO on argitaratua, 2013/01/28an, astelehena)
- Iraupena eta lanaldia: 6 hilabete, lanaldi partzialean (ohiko lanaldia baten %75).
- Kontratu mota: Obra edo zerbitzu zehatz baterako kontratua
- Probaldia: 1 hilabete.
- Lanpostu kopurua: 1

- Lanpostua: **Zerbitzu anitzeko peoi espezialista**
- Maila profesionala: Peoi espezialista
- Aplikatuko den hitzarmena: Bizkaiko Eraikuntzaren Sektorerako Hitzarmen Kolektiboa "(Hitzarmen kod.: 4800715011981, 19 zk.ko BAOn argitaratua, 2013/01/28an, astelehena)
- Iraupena eta lanaldia: 6 hilabete, lanaldi partzialean (ohiko lanaldia baten %75).
- Kontratu mota: Obra edo zerbitzu zehatz baterako kontratua
- Probaldia: 1 hilabete.
- Lanpostu kopurua: 11

5.- Hautagaien baldintzak.

Hautagaiek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Espainiako nazionalitatea edukitzea, Europar Batasuneko herritarra izatea edo bizi-leku eta lan baimena edukitzea, Europar Batasunetik kanpoko atzerritarra izanez gero.
- Adin nagusikoa izatea eta ez gainditzea derrigorrez erretiratzeko gehieneko adina.
- Laneko eginkizunak betetzeko ezgaitasunik ez edukitzea.
- Langabe eta disponibilitate osoz egotea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena-emanda, eskaera aurkezteko unean zein kontratazioaren unean.
- Trapagaranen erroldatuta egotea, gutxienez 2013ko martxoaren 31az geroztik.
- 2009ko apirilaren 1etik udalaren zuzeneko edo zeharkako enplegu programen bidez kontratatua izana ez izatea.
- Gutxienez, Eskola-ziurtagiria izatea.
- Ofizial lanposturako, gutxienez 24 hilabeteko lan-eskarmentua izatea enplegu programarekin loturiko lanetan

- Familia unitate bakoitzeko pertsona batek baino gehiagok ezin izango du parte hartu eta lan egin programan, enplegu-eskatzailerik egon ez eta lanpostuak betetzeke geratzen direnean izan ezik.
- Gutxienez lanpostuen %30 gordeko da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren hartzaileentzat (DBE).
- Lanpostuen gainerako %70a honako **kolektiboetako** pertsonentzako gordeko dira: 35 urte edo gutxiagoko pertsonentzat; 45 urtetik gorako pertsonentzat, lan-eskatzaille gisa inskribaturik badaude, gutxienez 6 hilabetez; iraunpen luzeko langabeentzat; ezintasunak dituzten pertsonentzat; familia-ardurak dituzten emakumeak eta genero indarkeriaren biktima diren emakumeak.

Kolektiboei buruz kontuan hartu beharreko oharrak:

- Iraunpen luzeko langabetzat hartzen dira Lanbiden gutxienez 12 hilabetez inskribatuta egon diren pertsonak, kontratazioaren aurretiko 18 hilabeteetan.
- Gizarte bazterketa arriskuan dagoen pertsonentzat hartzen da, DBEren titularrak eta haien bizikidetzaren unitateko kideez gain, honako beste hauek:
 - 18-30 urteko gazteak, Adin txikikoak Babesteko Erakundeetan egondakoak badira.
 - Drogamenpekotasun arazoak edo beste adikzio arazo batzuk edukita, errehabilitazio edo gizarteratze prozesuan dauden pertsonak.
 - Espetxeetan sartutakoak, euren zigor-egoerak enplegu bat eskuratzeko ahalmena ematen badiete, eta euren lan-harremana uztailearen 6ko 782/2001 Errege Dekretuaren 1. artikuluan araututako lan-harreman bereziaren aplikazio-eremuan sartuta ez badago, eta horrez gain, baldintzapeko askatuak eta preso ohiak.
 - Zigor-erakundeetan sartutako adin txikikoak, adin txikikoen zigor erantzukizuna arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren aplikazio eremuan sartuta badaude eta euren egoerak enplegu bat eskuratzeko ahalmena ematen badiete, lan-harremana uztailearen 30eko 1774/2004 Errege Dekretuak onarturiko aipatu Legearen Arautegiaren 53.4 artikuluan aipatzen den lan-harreman bereziaren aplikazio eremuan sartuta ez badago, baita zaintzapeko askatasun egoeran daudenak eta preso ohiak ere.

- Euskal Autonomia Erkidegoko eskudun agintariak baimenduriko ostatu alternatiboetatik datozen pertsonak.

6.- Hautapen prozesua.

Hautapen prozesuak bi fase izango ditu: lehiaketa fasea eta elkarrizketa fasea.

A) LEHIAKETA FASEA

Hautagaiak aurkeztutako agiriak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

- 1.- Bere kargura dituen senide kopurua:** gehienez 4 puntu.
- 2.- Prestazioak kobratzea:** gehienez 5 puntu.
- 3.- Langabeziako antzinasun-denbora:** gehienez 4 puntu.
- 4.- Euskaraz jakitea:** gehienez 2 puntu.
- 5.- Prestakuntza osagarria 2013 – 2014an:** gehienez 1 puntu.
- 6.- Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Gizarte Ongizate Sailak adierazitako esku-hartze egoera:** 3 puntu.
- 7.- Lan eskarmentua (1. mailako ofizial lanposturako hautagaiak baino ez):** gehienez 4 puntu.

B) ELKARRIZKETA FASEA:

- 1.- Elkarrizketa pertsonala:** gehienez 9 puntu.

Hautagai bakoitzaren azken puntuazio osoa merezimenduen balorazioaren faseko puntuazioa eta elkarrizketakoa batuta ateratzen dena izango da. Puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan erregistraturik langabezia antzinasun handiena duen hautagaiak izango du lehentasuna; berdinketak jarraituko balu, adin handikoen hautagaiak izango du lehentasuna.

7.- Baremaziorako irizpideak

LEHIAKETA fasean aplikatuko diren baremoak:

- 1.- Bere kargura dituen senide kopurua:** gehienez 4 puntu.

- a) Ezkontidea, 26 urtetik beherako seme-alaba, etxean hartutako adin txikiko eta aurreko ahaide bakoitza, beti ere etxe berean erroldatuta badaude eta diru-sarrerarik ez badaukate: 1 puntu.
- b) Ama edo aita ez kustodia bada, senidea bere pentzura dagoela ulertuko da, epai irmo edo hitzarmen arautzailearen bidez egiaztatzen bada elikagaiak ordaintzeko betebeharra.

2.- Prestazioak kobratzea: gehienez 5 puntu.

- a) DBE-ren titularra bada: 5 puntu.
- b) Gizarte Larrialdietarako Laguntza jasotzen badu: 4 puntu
- c) Langabeziako prestaziorik edo subsidiorik jasotzen ez badu: 2 puntu.
- d) Langabeziako subsidioa jasotzen badu: 1 puntu.
- e) Langabeziagatiko prestazioa jasotzen badu: 0,5 puntu.

Oharra: Pertsonaren batek prestazio bat baino gehiago jasoko badu, punturik gehien ematen diona baino ez da zenbatuko.

3.- Langabeziako antzintasun-denbora: gehienez 4 puntu.

- 36 hilabetetik gorako antzintasuna langabezian4 puntu
- 24-36 hilabeteko antzintasuna langabezian3 puntu
- 12-24 hilabeteko antzintasuna langabezian2 puntu
- 12 hilabete baino gutxiagoko antzintasuna langabezian ...1 puntu.

Oharra: Lanbideren DARDE delakoan agertzen den inskripzio-data hartuko da kontuan langabezia-denbora zenbatzeko.

4.- Euskararen ezagutza: gehienez 2 puntu

- a) Euskararen ezagutza maila egiaztatzeko agiri ofizialaren arabera, honako puntuak emango dira:
 - IVAP-aren 3. Hizkuntza Eskakizuna; HABEren 3. mailaren ziurtagiria, Osakidetzaren 3. Hizkuntza Eskakizuna; Ertzaintzaren 2. Hizkuntza Eskakizuna, Euskararen Gaitasun Agiria (EGA);

Nafarroako Euskararen Gaitasun Agiria (EGA); Euskaltzaindiaren D ziurtagiria; Irakaskuntzako 2. Hizkuntza Eskakizuna; EAE eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialen eta Madrilgo Hizkuntz Eskola Ofizial Zentralaren Gaitasun Agiria edo 5. maila (ikasketa plan zaharra), EAE-ko Hizkuntza Eskola Ofizialen Gaitasun maila, (ikasketa plan berria)..... 2 puntu.

- IVAP-aren 2. Hizkuntza Eskakizuna; HABEren 2. mailaren ziurtagiria, Osakidetzaren 2. Hizkuntza Eskakizuna; Ertzaintzaren 1. Hizkuntza Eskakizuna; Irakaskuntzako 1. Hizkuntza Eskakizuna; EAE eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialen 4. maila (ikasketa plan zaharra), EAE-ko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialen Goi maila, (ikasketa plan berria)..... 1 puntu.
- IVAP-aren 1. Hizkuntza Eskakizuna; HABEren 1. mailaren ziurtagiria, EAE eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialen 3. maila (ikasketa plan zaharra), EAE-ko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialen Tarteko maila, (ikasketa plan berria)..... 0,5 puntu.

5.- Prestakuntza osagarria 2013 – 2014an: gehienez 1 puntu.

- 300 orduetik gorako prestakuntza ikastaro ez arautua:.....1 puntu
- 200tik 300 ordura arteko prestakuntza ikastaro ez arautua:..... 0,75 puntu.
- 100dik 200 ordura arteko prestakuntza ikastaro ez arautua:..... 0,50 puntu.

Oharra: Ez dira kontuan hartuko 100 orduetik beherako prestakuntza-ikastaro ez arautuak, ezta iraupena adierazten ez duten ikastaroak edo emate-data agertzen ez duten tituluak.

6.- Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Gizarte Ongizate Sailak adierazitako esku-hartze egoera: 3 puntu.

- Sailaren txostena..... 3 puntu.

Oharra: Eskuhartze-txostena Valle de Trápaga-Trapagarango Gizarte Ongizate Sailak erakunde esleipendunari ematen dien agiri bat da, non egiaztatzen baita Sail horren hautagaiarengan esku hartu duela, eta hortik bere beharrezana (agiri pribatua erakunde kontratatzailea eta Gizarte Ongizate Sailarekin). Txostenik ez badago, "zero" puntu emango dira.

7.- Lan eskarmentua (1. mailako ofizial lanposturako hautagaiak baino ez): gehienez 4 puntu.

- 60 hilabetetik gorako eskarmentua, 1. mailako ofizial gisa, eraikuntza sektorean:.....4 puntu.
- 48 hilabetetik gorako eskarmentua, 1. mailako ofizial gisa, eraikuntza sektorean:.....3 puntu.
- 36 hilabetetik gorako eskarmentua, 1. mailako ofizial gisa, eraikuntza sektorean:.....2 puntu.
- 24 hilabetetik gorako eskarmentua, 1. mailako ofizial gisa, eraikuntza sektorean:.....1 puntu.

Oharra: Ez da kontuan izango 24 hilabetetik beherako eskarmentua 1. mailako ofizial gisa, eskatzen den gutxienekoa delako.

ELKARRIZKETA faseko baremoak:

1.- Elkarrizketa pertsonala: gehienez 5 puntu.

Bakoitzarekiko elkarrizketaren bidez hautagaiak lanpostura doitzen diren baloratzeko balioko du. Honakoak baloratuko dira: hautagaiak lanpostuari dagokionean dituen ezagutzak, jarrerak eta gaitasuna eta taldean lan egiteko trebezia.

8.- Epeak eta agirien aurkezpena.

Enplegu programan parte hartu nahi duten interesdunek, Lanbidek-Euskal Enplegu Zerbitzuak berriaz jarritako enplegu eskaintzan apuntatu beharko dira eta Valle de Trápaga-Trapagarango Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian aurkeztu beharko dute, ezarritako epearen barruan, behar bezala betetako eskaera, derrigorrez eskatzen diren agiriekin batera. Horrez gain, nahi duenak, oinarrietan jasotzen diren balorazio-irizpideak betetzen dituztela egiaztatzeko balio dezaketen agiri guztiak aurkez ditzake, lehiaketa fasean puntu gehiago lortuko badu.

DERRIGORREZKO AGIRIAK

- Eskaera, behar bezala beteta eta sinatuta.
- NAN/AIZren fotokopia, edo bizi-leku eta lan-baimena.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan egindako enplegu eskaeraren alta eta berriztapena (DARDE), hautapenaren datan eguneratua.
- Lanbideko inskripzio-aldien ziurtagiria (alta- eta baja-aldiak) eguneratua.

- Lan bizitzaren txostenaren fotokopia, Gizarte Segurantzak emana 2014an.
- Errolda-ziurtagiria Valle de Trápaga- Trapagarango udalak emana, 2014an.
- Currículum Vitae eguneratua, karnet tamainako argazkiarekin.

AUKERAKO AGIRIAK

- SEPEren ziurtagiria, hautagaiak langabeziagatiko prestazio edo subsidiorik jasotzen ez duela dioena.
- Familia-liburuaren fotokopia.
- Bizikidetzeta ziurtagiri eguneratua, Valle de Trápaga- Trapagarango udalak emana 2014an.
- Hautagaia bere pentzurako senideen elikagaiak ordaintzera behartzen duen epai irmoa edo hitzarmen arautzailearen fotokopia.
- Familia harreraren egintza judiziala/ ziurtagiriaren fotokopia.
- 2013-2014n egindako prestakuntza osagarriko tituluen fotokopia.
- Euskararen ezagutza agiaztatzen duen agiri ofizialaren fotokopia.
- SEPEren ziurtagiria, hautagaiak langabeziagatiko prestazioa jasotzen duela dioena, 2014an emana.
- SEPEren ziurtagiria, hautagaiak langabeziagatiko subsidioa jasotzen duela dioena, 2014an emana.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ziurtagiri eguneratua, D.B.E. jasotzen duela dioena.
- Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Gizarte Ongizate Sailaren ziurtagiri eguneratua, gizarte bazterketa arriskuan dagoela dioela.
- Minusbaliotasunaren ziurtagiria
- Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Gizarte Ongizate Sailaren ziurtagiri eguneratua, familia-ardurak dituen emakumea dela esaten duena.
- Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Gizarte Ongizate Sailaren ziurtagiri eguneratua, genero indarkeria pairatzen duten emakumea dela esaten duena.
- Agiri eguneratuak, egiaztatzen dutelak bere kargurako senideek ez dutela diru-laguntzarik jasotzen.

- Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Gizarte Ongizate Sailaren ziurtagiri eguneratua, hautagaiak Gizarte Larrialdietarako Laguntza jasotzen duela dioena.

Beharrezkoa izango balitz, Balorazio Batzordeak agiri gehigarriak eska dakizkieke hautagaiei, bakoitzaren inguruabar pertsonal eta laboralak zuzenki baloratzeko eta hautagaien egoera sozio-ekonomikoa zehazteko behar diren txostenak ere eska ditzake.

Eskaerak eta prestakuntza eta enpleguko programarako hautagaiak aukeratzeko prozesua arautzen duten oinarriak Meatzaldeko Behargintzaren web orritik www.behargintza-zm.com eta Valle de Trápaga-Trapagarango udalaren web orritik ere deskargatu daitezke www.trapagaran.net.

Meatzaldeko Behargintzaren bulegoetara (Geltokiko etorb., 14 – Behea. 48530 – Ortuella) edo Valle de Trápaga-Trapagarango Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentziaren bulegora goizez joanda ere har daitezke (Maiatzaren Lehena etorb. 1 – behea. 48510 – Trapagaran).

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Programan parte hartzeko eskaera eta gainerako agiriak aurkezteko epea zabalik egongo da **2014ko maiatzaren 15etik 26ra arte (13:00etara arte)**.

Maiatzaren 29an pertsona aurre-hautatuen zerrenda argitaratuko da, hau da, programak eskatzen dituzten baldintzak bete eta elkarrizketa fasera pasako diren pertsonena.

Aurre-hautatutako pertsonen zerrendan agertzen ez direnak, prozesutik baztertutzat joko dira, ez dituztelako betetzen eskatutako beharkizunak edota agiria epearen barruan ez aurkezteagatik.

Banan banako elkarrizketa 2014ko ekainaren 2, 3 eta 4an egingo dira. Programan ezarritako baldintzak bete eta aurre-hautatutako pertsonen zerrendan agertzen direnei baino ez zaie deituko.

Elkarrizkearen tokia, data eta ordua telefonoz jakinaraziko zaio hautagai bakoitzari. Ezinezkoa balitz hautagaiarekin kontaktatzea elkarrizketarako hitzordua jakinarazteko, interesduna bera izango da Meatzaldeko Behargintzarekin harremanetan jarri beharko dena, 944044958 telefonora deitu edo haren bulegoetara joaz, Geltokiko etorb., 14 – behea, Ortuella, 8:00etatik 15:00ak arte, 2014ko ekainaren 2tik 4ra.

Hautagaia ez balitz agertuko elkarrizketara ezarri zaizkion egun eta orduan, hautapen prozesurik kanpo geratuko litzateke besterik gabe, ezinbesteko kasua edo behar bezala justifikaturiko faltagatik ez bada.

9.- Hautatuen zerrenda.

Hautagaien sailkapena amaituta, merezimenduak eta elkarrizketa puntuatu eta gero, Balorazio Batzordeak hautatuen zerrenda argitaratuko du, puntuazioaren hurrenkeran. Meatzaldeko Behargintzako arduradunei bidaliko die proposamena dagozkion lan kontratuak sinatu ditzaten. Hautatu ez diren personak, "erreserbako zerrendan" geratuko dira, puntuazioaren hurrenkeran.

10.- Oinarrien onarpena.

Hautapen prozesuak parte hartzeak honako oinarri hauek berariaz onartzen direla suposatzen du. Balorazio Batzordeak ahalmena izango du oinarrietan agertzen ez den edozein kontu ebazteko eta haien edukia interpretatzeko.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2014ko maiatzaren 14an.

Izptua.: Saulo Nebreda Trevejo
Kontseilari Delegatua